

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4193

EBAZPENA, 2017ko irailaren 6koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioetarako laguntzak ematen baitira larrialdietarako laguntzetarako eta ekintza humanitarioetarako finantzaketa-lerro iraunkorretik, 2017rako garapenerako lankidetzaren kargura.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautu zituen garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak, eta bi jarduketa mota nagusi bereizi zituen. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira, urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabalagoan; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko ebazpenaren bidez (2017ko maiatzaren 25eko EHAA, 78. zk.), 2017rako garapenerako lankidetzaren kargura, ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egin zen.

Deialdiaren ebazpenaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2017ko uztailaren 13ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.— II. eranskinean ageri diren erakundeei diru-laguntzen eskaerak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.— Ebazpen honetan ez da bukatzen administrazio-bidea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal zaio, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtsioa jartzen denetik hiru hilabete igaro eta ez bada ezer ebatzi, errekurtsioa ezetsitatzat hartu ahal izango da, eta irekita geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 6a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2017ko abuztuaren 25a, ostirala

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zenbakia	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Herrialdea	Diru-laguntza
PRE-2017LL/0004	UNICEF Fundazioa-Espainiako Batzordea EAEko ordezkaritza	Proporcionar acceso a agua potable y segura a las poblaciones más vulnerables de las regiones de Somalí, Oromia y SNNPR de Etiopia afectadas por la sequía	Etiopia	199.330,00 €
PRE-2017EH/0011	Paz con Dignidad elkartea	Mejora la capacidad de respuesta en situaciones de emergencia del Hospital Al Awda en la zona Norte de la Franja de Gaza	Palestina	200.000,00 €
PRE-2017EH/0012	Solidaridad para el Desarrollo y la Paz SODEPAZ	Recuperación de la producción de alimentos después del paso del Huracán Matthew en las comunidades de David, Maletti; Delion y Preville, en la 3.ª section Haute Guinaudee Gand Anse	Haiti	132.771,56 €
PRE-2017EH/0014	Acción Contra el Hambre Fundazioa	Mejora de las condiciones de vida de los Refugiados Sirios Urbanos en Estambul a través de la promoción de la Resiliencia, la participación, la integración y el apoyo a una coexistencia pacífica	Turkia	200.000,00 €

2017ko abuztuaren 25a, ostirala

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zenbakia	Erakunde eskatzailea	Titulua	Herrialdea	Baztertzeko arrazoia
PRE-2017EH/0013	Asociación de Colombianos en el País Vasco «ASOCOLVAS»	Apoyar las labores de liberación de tierras que la organización de desminado humanitario	Kolonia	Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 15. artikuluan jasotako betekizuna ez betetzeagatik; betekizun horren arabera, gutxienez 50 puntu lortu behar dira